



**EUSKO  
IKASKUNTZA**  
Asmoz ta Jakitez

## EUSKO IKASKUNTZAREN MANUEL LEKUONA SARIA

# 2022ko deialdia Inprimaki arautua

**OHAR GARRANTZITSUA.** Norberaren datuak babesteko indarrean dagoen legeria betez, Eusko Ikaskuntzak jakinarazten dizu bilduriko norberaren datuek tratamendu informatizatua izango dutela sariaren helburua kudeatzeko. Orobat, Eusko Ikaskuntzak jakinarazten du sartzeko, zuzentzeko, bertan behera uzteko eta aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituela fitxategiaren arduradunaren aurrean, dela posta elektronikoaren bidez [ei-sev@eusko-ikaskuntza.eus](mailto:ei-sev@eusko-ikaskuntza.eus), dela posta arruntaren bidez, erakundearen helbidean: EI/SEV Norberaren Datuen Arduraduna, Miramar Jauregia, Miraconcha 48, 20007 Donostia.

Enkarni Genua.

2022 Lekuona Sarirako hautagaitza babesteko gutuna.

Donostian, 2022 irailak 17

Txotxongilolari eta haur literatura sortzaile emankorra. Donostian jaioa 1942-04-15an. Bere curriculumak ikusi besterik ez dago bost hamarkada hauetan egin duen lanaz jabetzeko. Euskal kulturaren, haur literaturan eta txotxongilogintzan euskaraz zegoen hutsunea betetzen hasi zen Frankismoaren azken urteetan eta ordutik sorkuntza lanetan – besteak beste, idazketan, gidoigintzan, eta txotxongilo emanaldiak prestatzen eta gauzatzen jarraitu duen emakumea dugu.

1971ean Manolo Gómezekin batera, Txotxongillo taldea sortu zuen, haurren aisialdian euskarazko eskaintzaren urritasuna ikusita eta bai eta sorkuntzarako grinak bultzatuta. Nagusitan euskaldundua, bere sorkuntza osoa euskaraz egin duen egilea dugu. Mende erdi pasako ibilbidean milaka emanaldi eman ditu Euskal Herri osoan zehar, bai eta ehundaka batzuk Euskal Herritik kanpo. Euskara eta euskal kultura zein mitologia izan dira bere sormenaren ardatz nagusia.

Aipatu moduan, bizi osoko sorkuntza ibilbide oparoa du. Bost hamarkadatarako ekoizpen aberatsa eta batez ere, originala. Bere eskarmentua eremu akademikotik kanpokoak izan da. Bere lan artistiko eta literarioak Euskal kulturaren ezagutza handia du, ahozko literatura eta mitologia kondairak biziberritu eta sorkuntzarako iturri moduan baliatu ditu, euskal ahozko tradizioa egungo gizartera egokituz. Kontalarien tradizioa maisuki eraberritzen asmatu du. Joxe Migel Barandiaran eta Resurreccion Maria Azkuek bildutako ipuin eta kondairak biziberritu eta gizarteratu ditu, euren jatorrizko nekazal testuingurutik atera eta gizarte osoaren eskura jarriaz.

Euskal kulturari nazioarteko proiektzioa emateko gai izan da, baldintza zailetan eta baliabide urriekin, euskarazko txotxongilo emanaldiak nazioarteko jaialdietara eramanez. Txotxongillo taldea abian jarri arte, apenas zegoen txotxongilo produktiorik Euskal Herrian, zertxobait gerra aurrean. Frankismo garaian Colorín txotxongilo panpina da ezagunena, baina garai hartan zegoen apurra gazteleraz zen. Txotxongillo taldeak, Enkarni Genuak euskaraz propio idatzitako lan originalei esker txotxongiloak euskal mundura hurbildu eta euskal kultura txotxongiloen nazioarteko esparrura zabaldu du urtetan zehar. Horren lekuko da Tolosako Topic, zeinarekiko konpromiso eta ilusioa partekatzen duen Enkarni Genuak hasiera hasieratik. Egun mundu mailako erreferentea da Topic nazioarteko txotxongiloen esparruan.

Balio unibertsalak bultzatu ditu bere lanetan zehar, estetika zaindu eta erakargarri baten bidez.

Enkarni Genuaren lanen berrikuntza eta originaltasuna aipagarriak dira. Bere lanen originaltasuna bai eta berauek plazaratzeko baliabideak berritzaileak izan dira, txotxongiloen mundua euskal gizarteri zabalduz eta euskarazko txotxongilo produktioa bultzatuz. Egun Euskal Herria nazioarteko txotxongilo esparruan erreferente eztabaida-ezina da, neurri handi batean Txotxongillo taldearen ibilbide eta lanei esker eta Enkarni Genuaren kemen eta bultzadari esker.

Gaurkotasun handiko bilakatu diren gaiak nagusitu eta orokortu aurretik plazaratzen aitzindaria izan da. Besteak beste,-naturarekiko errespetua eta ekologismoa eta emozioetan hezteak dira bere lanen

ardatz aipagarrienetakoak. Horiekin batera, aipamen berezia merezi du hastapenetik parekidetasuna eta ikuspegi feministak bere lanetan duen presentzia. Bechdel testa abian jarri baina askoz lehenagotik bere lanetan emakumezko pertsonaiak zentralak izan dira, hastapenetik.

Dibulgatzaile lan esanguratsua egin du ere, telebista eta ikus-entzunezkoen esparruan, beti euskaraz. Euskaldun berrien ahalduntzerako bai eta berauen ikusgarritasunerako erreferente garrantzitsua izan da Enkarni Genua eta bere taldea.


Horrez gain, belaunaldien arteko lotura eta zubi-lanak egiten iaioa izan da eta jarraitzen du izaten; itxuraz xinpleak diren argudio sakonak eta balioak hurrengana hurbildu eta haiengandik ikasitakoa helduekin partekatu du ere.

Bi egunean behin ematen zituzten emanaldiak aktibitate handieneko garaian, Euskal Herri osoan, hiri zein herrietan. Zenbakietatik haratago doa bere ekarpena. Zenbat urte behar dira ipuin bat klasiko bihurtzeko? Eta pertsonaia bat idazlea bezain ezagun izateko? Orixe bera gertatu zaio Enkarni Genuari, Erreka Mari Euskal herrian dagoen lamina ezagunena izateaz gain dagoeneko ipuin klasiko bat bihurtu baita. Nork ez du "Erreka Mari, Euskal Herriko azken lamina" ezagutzen? Non bizi da Erreka Mari Euskal Herriko edozein erreka zuri urdinetan ez bada?

Bere ekarpena, ordea, ez da Literatur sormenera mugatzen. Dibulgazioaz gain, heziketa ere izan da bere lanaren ardatz. Gaiari eskainitako artikulua espezializatu eta liburuez gain, modu praktikoan gauzatu da heziketarekiko bere kezka: Denbora Libreko monitoreen heziketan, Magisteritza eskolan plastika irakasle eta TOPIC, Tolosako txotxongiloen etxean, hainbat eta hainbat tailer eman ditu haur eta gaztetxoentzat. Modu honetan bere sormen gaitasuna eta ezagutza partekatu du.

Euskal Herritik kanpo bere txotxongiloak eraman dituenean euskal kulturaren enbaxadore izan dela ere esan dezakegu. Estatuko txotxongilo jaialdi ezagunenetan punta puntako taldeekin batera jardun du, baina baita nazioartean ere: Cuba, Praga, Miami, Mexiko... eta abar luze batera iritsi da euskal kulturaren oihartzuna bere lanaren bidez.

Enkarni Genuaren ibilbidea guztiz bat dator Lekuona sariaren printzipioekin eta berau jasotzeko hautagai ezin aproposagoa iruditzen zait.



Aitzpea Leizaola Egaña  
Antropologia Euskal Herriko Unibertsitatean

Hautagaitzaren bultzatzailea



**EUSKO  
IKASKUNTZA**  
Asmoz ta Jakitez

## EUSKO IKASKUNTZAREN MANUEL LEKUONA SARIA

### 3. PROPOSAMENAREN ARRAZOIAK

3.1. Hautagaia aurkezteko arrazoiak (bere ibilbidea, euskal kulturarekin konpromiso eta ekarpen nagusiak, dibulgazio lanak, eremu akademikotik kanpo duen eskarmentua...)

Orain artean Lekuona saria jaso dutenak nagusiki gizonaek izan dira; Enkarni Genua saritua izateak desoreka hori leuntzen lagunduko luke. Ezpairik gabe sari honetarako perfil ezin egokiagoa duen hautagaia da

#### **INPRIMAKO HONEKIN BATERA BIDALI BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA:**

- ✓ Aurkezpen eskutitza
- ✓ Curriculum Vitae
- ✓ Hautagaiaren argazkia
- ✓ Beste (egon ezker)

**Tokia, data eta sinadura**

# Enkarni Genua Espinosa

Idazle eta txotxongilolaria.

1980 Deustuko Unibertsitatean Filosofia eta Letretan lizentziatua.

1971 urtean **Txotxongillo Taldea** sortu zuen Manolo Gomezekin batera. Txotxongillo taldearen lehendabiziko saioa Jakintza ikastolan eman zuten urte horretan bertan. Geroztik 51 urte hauetan bere txotxongiloekin milaka emanaldi eman ditu euskaraz, Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo.

1975 urtean RTVE delakoak *Euskalerrria* izenbuararekin euskaraz eginiko lehenengo teleaioan parte hartu zuten. Programa horretan hurrei zuzendutako *Pinpilinpauxa* izeneko atalean aritu ziren. Ikus-entzunezkoen garrantziaz jabetuta, emanaldiak grabatzeari ekin zioten oso goiz.

1971tik haur literaturako hainbat lan argitaratu ditu, nagusiki txotxongilo gidoiak, baina baita ipuinak ere. 1990. hamarkadan, ordura arteko ibilbidea aintzat hartuta, teorizazio lanak eta batez ere material didaktiko pedagogikoa argitaratzeari ekiten dio, metatutako esperientzia zabaldu eta eragile gazteagoren eskura jarri asmoz.

1982 urtetik aurrera Tolosako CIT-eko (Tolosako Ekinbide Etxea) partaideekin batera, Titirijai jaialdia jarri zuten martxan, hau da, Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia. Orduetik ekitaldiaren antolaketan laguntzaile izaten jarraitzen du eta TOPIC (Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentroa) egitasmoan ere elkarlanean ari da.

## **Burututako lanak: Idatzizkoak, emanaldiak eta ikus-entzunezkoak**

Nagusiki haur eta gazte literaturaren eremuan kokatzen dira Enkarni Genua lanak. Lau motatako lanak ageri dira zerrenda honetan.

- Txotxongilo gidoiak
- Ipuinak
- Argitalpen didaktiko eta pedagogikoak
- Emanaldiak
- Ikus-entzunezkoak

*Txispa eta bere lagunak ikastolan* (1971, argitaragabea)

*Txispa eta Katarin* (1972, argitaragabea)

*Aupa txoruak, Altza Felipe Tru la lai* (1973, argitaragabea)

*Jaxinto eta Joxepa* (1974, argitaragabea)

*Sugea, gizona eta azeria* (1978, Ipurbeltz aldizkaria Erein)

*Behin batean Txindoki maldan* (1978, Ipurbeltz aldizkaria Erein)

*Erreka Mari, Euskalerriko azken lamina* (1979, Erein)

*Zezena plazan* (1980, Erein)

*Txotxongilo eskolan* (1982, Erein)

*Printze txikia* (1983, Erein)

*Antzerti - Txotxongilo, gidoiak eta txotxongiloak egiteko teknikak -* (1983 Eusko Jaurlaritza)

*Amonaren ipuinak* (1983, Eusko Jaurlaritza)

*Zezena plazan* (1986, Erein)

*Ipurtargi: hondarrezko gaztelua* (1986, Erein)

*Ipurtargi: txori txiki polit bat* (1986, Erein)

*Altxor bat patrikan* (1988, Erein)

*Ipurtargi: azken eta putz xagutxoak* (1989, Erein)

*Ipurtargi: udazkeneko haizea* (1989, Erein)

*Itsasminez* (1990, Erein)

*Gizona sugea...* (1991, Ipurbeltz aldizkaria Erein)

*Bene-benetan... katua berbetan - Dramatizazioa, irakaskuntzarako materiala, 6 lan-koaderno -* (1992-1994 Elkar-GIE)

*Herensugea* (1993, Erein)

*Zatoz! : Tolosara txotxongiloak ezagutzera* (1993, Tolosako Ekinbide Etxea eta Gipuzkoako Foru Aldundia)

*Galtzagorriak* (1994, Erein)

*Kalean gora, kalean behera - Euskaraz jolasteko irakaskuntza materiala (2 lib.)-* (1995-1996 Elkar-GIE)

*Eman eta gero* (1996, Erein)

*Orain... gure txanda da!* - Txotxongiloei buruzko azalpenak - (1997, Tolosako Ekinbide Etxea)

*Ku-ku aitonaren erlojua* (1998, Desclée De Brouwer)

*Gerta daiteke* - antzerki saritua- (1998, Iruñeko Udala)

*Zabaldu oihala!* - antzerkia egiteko gidoia eta orientazioa - (2001, Erein)

*Munstroak eta lagunak* (2001, Erein)

*Gutziak* (2001 Txalaparta)

*Zatoz lehenbailehen!* (2004, Erein)

*Elurrezko panpina* (2005, Erein)

*Katu gaiztoak ez dira gaiztoak* (2005, Erein)

*Altxor bat esku artean : txotxongiloak* (2009, Erein)

*Zergatik bizi da basoan Txangorritxoren amona?* (2006, Erein)

*Kontu kontari (33+3 urte)* (2006, Erein)

*Hitzen lapurra* - bertso-txotxongiloa - (2008, Lanku)

*Altxor bat eskuetan: txotxongiloak, teorizazioa, historia, lan praktikoak* (2009, Erein)

*Mahatsak eta neskatilak ondu zireneko uda* (2010, Erei)

## **Diskak**

*Erreka Mari* (1978, OTS/Hg)

*Printze txikia* (1984, IZ)

*Zezena plazan* (1984, IZ)

*Erreka Mari* (1985, IZ)

*Sugea, gizona eta azeria* (1985, IZ)

*Sar dadila kalabazan* - 8 disko - (1985-1989, IZ)

*Ipurtargi I* (1986, IZ)

*Altxor bat patrikan* (1987, IZ)

*Ipurtargi II* (1988, IZ)

*Txotxongilo kanta sorta* (1988, IZ)

*Kuttun kuttuna* - 2 disko - (1990-1991, IZ)

*Xirimiri* (1991, IZ)

*25 urte zuekin* (1996, IZ)

## **Itzuli dizkioten obrak**

### **Itzulpenak**

*Qui vulgus jugar, que aixequi la mà* – *Expressió dramàtica*, Irakaskuntzarako materiala (2 ale), Ediciones 62, 1992

*Obras para títeres*, txotxongilorako gidolak erderaz, Teatro Arbolé y Cultural Caracola, 1999

*Primer acto: Todos los viernes, cena*, antzerkia, Kutxa Sarria, Cuadernos de Investigación Teatral nº 289, 2001

*Un tesoro en nuestras manos: Los títeres*, teorizazioa, historia, lan praktikoak, Erein, 2007



## Jasotako sariak

### Sariak

- 1980, Ercilla saria, Bilboko Udala.
- 1983, I Mostra de Titelles de L'Estat Espanyol, eszenografiarengatik, Tarrasa.
- 1985, Haur musika (Opera) I. Lehiaketa. Musika: Juan Cordero Castaño. Gidola: Enkarni Genua. Obra: Erreka Mari.
- 1997, *Gerta daiteke*, umeentzako antzerki testuen lehiaketa. Nafarroako Antzerki Eskola. Iruñea.
- 2001, *Ostiralero afaria*, antzerkia. Donostia Hiria Literatur Saria. Kutxa. Donostia.
- 2007, Victoria Eugenia Saria. Donostiako Antzerki FERIA. Ibilbidea. Donostia.
- 2013, Hiritar Merituari Urrezko Domina. Donostiako Udala.
- 2013, Ohorezko laguna. TOPIC. Tolosa

## Parte hartutako JAIALDIAK

TOLOSA	Nazioarteko txotxongilo jaialdia: 1983/85/88/90/94
BILBO	Nazioarteko txotxongilo jaialdia: 1982/83/88/91/95/96/2000
BILBO	Muestra de titeres de Euskadi: 1984/85/90
DONOSTIA	Muestra de titeres Euskal Herria: 1994
GASTEIZ:	Festival Internacional de Marionetas: 1985/89/91/94
GASTEIZ	Muestra de Teatro del Pais Vasco: 1978
IRUÑEA	Festival de Teatro de Navidad: 1991/93/95
AZPEITIA	Euskal Antzerkiaren Topaketak: 1983
SESTAO	Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia: 1990/94
ZUMAIA	Verano Musical: 1991
HENDAIA	Euskal Txotxongilo Jaialdia: 1990/92/93/95/97
DONOSTIA	Musika Hamabostaldia/Quincena Musical: 1989/90
TARRASA	Mostra de Titelles de l'Estat Espanyol: 1983
BARCELONA	Festival Internacional de Titelles: 1984/87/89
ZARAGOZA	Festival Internacional de Marionetas: 1983
SEGOVIA	Festival Internacional de Marionetas: 1985/90
VALENCIA	Festival de Teatro de Primavera: 1985/86
ELDA	Festival Internacional de Marionetas: 1987/89
SEVILLA	Festival Internacional de Marionetas: 1988
LOGROÑO	Festival Internacional de Marionetas: 1992/95/97
LLEIDA	Festival Internacional de Titelles: 1993
TENERIFE	Festival Internacional de Marionetas: 1992
CIUDAD REAL	Festival Orquestas de Camara. "El Retablo": 1989

CUENCA	Festival Orquestas de Camara. "El Retablo": 1989
GUADALAJARA	Festival Orquestas de Camara. "El Retablo": 1989
TOLEDO	Festival Orquestas de Camara. "El Retablo": 1989
ALICANTE	Festival Internacional de Marionetas: 1989
MADRID	Ciclo Gandes Orquestas. "El Retablo": 1990
TXEKIR ERREP.	Festival Internacional. (Ostrava, Opava, Praga): 1985
ALEMANIA	Jornadas Pedagógicas. Universidad de Münster: 1990
MEXICO	Festival Internacional del Estado de Tlaxcala: 1993/95/99
	Festival Internacional del Estado de Morelos: 1995
	Festival Internacional del Estado de Guerrero: 1995
MIAMI	Festival Internacional de Teatro: 1994
CUBA	Taller Internacional de Teatro de Titeres. Matanzas: 1998/2000